

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

“Buelta eman nahi diogu” ekimenak 300 atxikimendu jaso ditu

Krisi ekonomikoa gainditzeko asmoz ekimenak eta ahaleginak batzeko helburua du kanpainak

Martes, 29 de mayo de 2012

300 enpresa, erakunde eta herritar baino gehiago atxiki dira dagoeneko “Buelta eman nahi diogu” ekimenara. Foru Gobernuak eta Nafarroako enpresari talde batek sustatuko kanpaina da, krisi ekonomikoa gainditzeko asmoarekin ekimenak eta ahaleginak batzeko helburua duena.

Ekimena joan den astelehenean aurkeztu zen. Herritarrak www.queremosdarlelavuelta.com/eu web orrian atxiki daitezke kanpainara eta bertan aurkez ditzakete euren ekarpen eta iradokizunak, bai eta besteek aurkeztutakoak ezagutu eta ekimeneko materialak deskargatu ere. Atxikimendu gehienak enpresa txiki eta ertainek eta zerbitzuen sektoreko autonomoek eman dituzte.

“Buelta eman nahi diogu” kanpaina gizarte osora irekia dago eta gizarteaz jabetu den “ezkortasun, tristura eta paralisi” egoerari buelta eman nahi dio. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak eta enpresa sustatzeileek mezua igorri diete herritar, langile, enpresari, elkarte eta gizarte eragile guztiei ekimenara atxiki eta Nafarroan ekonomia eta enpleguaren suspertzea helburu duten ideiak partekatzeko.

Nafarrek krisia gainditzeko egiten dutenaren bozgorailu bihurtu nahi du kanpainak eta ekimen guzti horiek gizartearen aurrean eredu gisa erakutsi. Era berean, esparru publiko eta pribatuaren arteko harremanak sendotu nahi ditu egoerari buelta emateko.